

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asteazken honetan aurretik izena emateko epea zabalduko da DBH, Batxilergoa eta LHko mailetarako

Eskaerak apirilaren 19a baino lehen aurkeztu ahal izango dira ikasi nahi den ikastetxean

Lunes, 08 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak asteazken honetan, apirilak 10, zabalduko du aurretik izena emateko epea 2013-2014 ikasturterako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Batxilergoan, Lanbide Heziketan (LH) eta Arte Plastikoetan eta Diseinuan. Eskaerak apirilaren 19ko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira Foru Komunitatean maila horiek ematen dituzten [ikastetxeetako](#) batean.

[DBH eta Batxilergoaren](#) kasuan, eskaera egin beharko dute beren ikastetxeari esleitutakoa ez den beste zentro batean ikasketak horiek egin nahi dituzten sare publikoko ikasleek, bai eta matrikulatuta dauden zentroan beren ikasketekin jarraitzeko aukera ez duten sare kontzertatutakoek ere. [LH eta Arte Plastiko eta Diseinuaren](#) kasuan, ikasle guztiak aurretik izena eman beharko dute, derrigorrezkoaren ondoko ikasketak baitira.

Eskaera bakarria bete behar da, eta bertan guztira hiru aukera jarriko dira. Agiria lehen aukeratzat jo den ikastetxeko instalazioetan aurkeztu beharko da.

Onartuen behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, matrikula-aldi bat finkatuko da, eta DBH nahiz Batxilergoaren kasuan ekainaren 28 eta uztailaren 12 artean izango da; LHko prestakuntza-zikloen eta Arte Plastiko eta Diseinuaren kasuan, uztailaren 15 eta 22 artean. Ohiko epean eskaera egin ahal ezin izan dutenentzat aurretiaz izena emateko aparteko aldi bat finkatuko da abuztua eta iraila artean.

Nafarroan DBH ematen duten 44 zentro daude (27 publiko eta 17 kontzertatu); 48k DBH eta Batxilergoa ematen dute (29 publiko eta 19 kontzertatu), eta 29k LH (21 publiko, 6 kontzertatu eta 2 kontzerturik gabe). 2013-2014 ikasturterako [LHko zentroen hezkuntza-eskaintzak](#) 86 ziklo barnean hartzen ditu, haietatik 81 presentzialak dira (50 goi-graduak eta 31 gradu ertainekoa) eta 5 urrutikoa (3 goi-graduak eta 2 gradu ertainekoa).